

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	DEPILAZIO ESTETIKO PROFESIONAL MEKANIKOA ETA ELEKTRIKOA	Iraupena	50
		Baldintzatua	
Kodea	UF1156		
Lanbide-arloa	Irudi pertsonala		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Beltzarantzea, makillajea eta depilazio aurreratua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Aldi baterako eta/edo behin betiko metodoen bidezko depilazioa	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Bezeroari depilatzeari buruzko aholkuak ematea eta bezeroa depilatzeako prestatzea	Iraupena	40
	----- Laser-depilazioa eta fotodepilazioa		50

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0581\_3 BEHIN BETIKO DEPILAZIOA EGITEA ETA/EDO ALDI BATERAKO DEPILAZIOKO PROZESUAK GAINBEGIRATZEA gaitasun-ataleko LB4, LB5 eta LB7 lanbide-burutzapenekin, depilazio mekanikoko eta elektrikoko zerbitzuei eta prozesuaren kalitatearen ebaluazioari dagokienez.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Aurpegirako eta gorputzerako depilazio mekanikoko teknikak pintzarekin eta argizariarekin aplikatzea, gunearen ezaugarriak kontuan hartuz eta segurtasun- eta higiene-neurriak betez.

EI1.1 Larruazala neurri egokiek prestatzea, depilazio mekanikoko prozesuak egiteko argizariarekin edo pintzekin.

EI1.2 Ilea pintzekin ateraz eta bete beharreko segurtasun- eta higiene-neurriak betez depilazio mekanikoa aplikatzeak dituen efektuak deskribatzea.

EI1.3 Egiaztatzea bezeroa jarrera anatomiko egokian dagoela depilatzeo eta sentituko dituen sententzioen berri emateko.

EI1.4 Argizari bidezko depilazio mekanikoko kasu praktiko batean:

- Egiaztatzea argizariaren tenperatura eta biskositate-maila hura emateko egokiak direla.
- Ilea hazten den noranzkoan ematea argizaria, lodiera berdineko zerrendatan, eta eman den kontrako noranzkoan kentzea zerrenda hautsi gabe, eta gunean presioa egitea.
- Argizari epela edo hotza ematean, telazko edo paperezko zerrenda jartzea gunean, eskuarekin presioa egitea, eta zerrenda ilearen aurkako noranzkoan kentzea.
- Behar izanez gero, geratzen diren ileak pintzaz kendu behar dira.
- Depilatutako guneko argizari-hondarrak erabat kentzea, zainketa egokiak aplikatzea, eta produktu kosmetiko egokiak ematea.

EI1.5 Argizariarekin depilatu eta gero, garbiketa-, desinfekzio- eta hidratazio-eragiketak egitea.

EI1.6 Egiaztatzea behin soilik erabiltzeko materialak eta produktuak unean indarrean dagoen araudia eta ingurumena errespetatuz botatzen direla eta geroko zerbitzuetan erabiliko diren aparatuek, tresnak eta gehigarriak garbitzeko eta esterilizatzeko zereginak egiten direla.

A2: Depilazio elektrikoko teknikak segurtasun- eta higiene-kondizio optimoetan aplikatzea.

EI2.1 Depilazio elektrikoko protokolo estandarizatuak interpretatzea, depilazio elektriko mota bakoitzerako aukeratutako parametroak arrazoituz.

EI2.2 Orratz-motak sailkatzeko faktoreak azaltzea, bakoitzaren erabilera nagusiak arrazoituz.

EI2.3 Modeloari depilazio elektrikoa aplikatzeko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Bezeroa depilatuko zaion gunera erraz iristeko posizio anatomikoan kokatzea, eta tratamenduak zer sententzio eragiten dituen eta prozesuan zer gorabeheren berri eman behar duen jakinaraztea.
- Erabiliko den aparatua prestatzea, egiaztatuz depilazio elektrikoko metodo egokia aukeratu dela eta tratamendu-parametro egokiak programatu direla.
- Orratz esterilizatua orratz-etxean sartzea, uneoro esteril mantenduz.
- Tratatu beharreko gunea produktu antiseptiko batean bustitako euskarri baten bidez tratatzea.
- Orratza ile- eta sebo-folikuluan inklinazio-angelu eta sakonera egokian bideratzea.
- Deskarga aurrez finkatutako denboran aktibatzea, eta korrontea igarotzeari utzitakoan, orratza kentzea.
- Tratutako ilea leun-leun kentzea pintza batzuekin, egiaztatuz ezarritako parametroak egokiak direla ezaugarri horietako ilea kentzeko, eta, beharrezkotzat joz gero, parametroak aldatuz.
- Deskongestionatzaile eta lasaigarri egokiak ematea.
- Segimendu-fitxan jasotzea fitxa betetzeko eskatzen diren datuak eta saioan gertatutako gorabeherak.

- Erabili den erabili eta botatzeko material guztia behar bezala botatzea, eta pintzak eta hurrengo saioetan erabil daitekeen material guztia behar bezala garbitzea eta esterilizatzea.

A3: Depilazio-prozesuak ebaluatzea, eta lortutako emaitzak baloratzea, behar izanez gero zerbitzuaren kalitatea hobetzeko neurriak proposatzeko.

EI3.1 Zerbitzuaren kalitaterako erabakigarriak diren alderdiak identifikatzea, depilazio-prozesuak aztertuz.

EI3.2 Lortutako emaitzak indartzen dituzten depilatu ondorengoko zainketen berri ematea bezeroari, eta haiei buruz aholkatzea.

EI3.3 Prozesuaren, zerbitzuaren eta lortutako emaitzen kalitatea ebaluatzeko aukera ematen duten irizpideak zehaztea eta azaltzea.

EI3.4 Bezeroaren gogobetetze-maila —zerbitzuaren emaitzari buruzkoa zein jasotako arreta pertsonalari buruzkoa— zein den jakiteko aukera emango duten galdera tipoak egitea.

EI3.5 Ematen den zerbitzuan hutsuneak eragin ditzaketen kausa teknikoak eta bezeroarentzako arretakoak aztertzea.

EI3.6 Modelo bat depilatzeke kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Depilazio-prozesuetako kalitate-adierazleak identifikatzea.
- Emaitzetan aurreikusitako emaitzekiko gertatu diren desbideratzeak detektatzea eta aztertzea, eta desbideratzeak eragin dituzten kausak identifikatzea.
- Zerbitzua emateko prozesua eskematizatzea, eta detektatutako anomaliak haiek gertatutako fasearekin lotzea.
- Behar izanez gero, kalitatea hobetzeko neurri zuzentzaileak proposatzea.

EI3.7 Komunikazio-protokoloak ezarritako kalitate-parametroak kontuan hartuz aplikatzen diren egiaztatzea.

EI3.8 Instalazioei, baliabide teknikoari eta produktuei buruzko araudia, indarrean dagoena, betetzen den ala ez ikusteko segimendua egitea.

## Edukiak

### 1. Depilazio mekanikoan erabiltzen diren aparatuak eta tresnak.

- Aparatuak eta materialak: espatula, telazko zerrendak, pintzak, zera-edukiontzia eta beste batzuk. Pintzen erabilera.
- Ekipoen alderdi orokorrak: urgailuak eta *roll-ona*.
- Depilazio mekanikoan erabiltzen diren aparatu elektrikoaren erabilera- eta segurtasun-arauak.
- Kontserbazioa eta mantentzea.
- Garbiketa eta desinfekzioa.

### 2 Depilazio mekanikorako kosmetikoak

- Hautatzeko, manipulatzeko eta emateko irizpideak:
  - Larruazala prestatzeko kosmetikoak.
  - Argizariak: beroa, hotza eta epela. Argizari-moten erabilerak eta kontraindikazioak.
  - Depilatu ondoren emateko kosmetikoak
  - Ilean hazkuntza atzeratzeko kosmetikoak. Garbigarriak. Hidratatzaileak. Deskongestionatzaileak
- Depilazio-prozesurako kosmetikoak manipulatzeko eta kontserbatzeko jarraibideak.

### 3 Depilazio mekanikoa eta elektrikoa.

- Depilazioaren protokoloa.
- Depilazio mekanikorako metodoak.
- Erabilerak eta kontraindikazioak. Depilazioarekin erlazionatutako larruazaleko lesioak.
- Norbera babesteko profesionalen neurriak:
  - Janzkera.
  - Lanerako gomendatutako jarrera-higienea.
- Depilazio mekanikoko prozesuetako bezeroa babesteko neurriak:
  - Janzkera.
  - Depilazio mekanikoko prozesuetarako gomendatutako jarrera-higienea.
- Segurtasuna eta higienea, depilazio mekanikoko prozesuetarako tresnak eta aparatu elektrikoak erabiltzean.
- Depilazio elektrikoa depilazioan aplikatuta
- Depilazio elektrikoaren helburua.
- Korrante elektrikoa:
  - Korrante elektriko moten definizioa eta sailkapena:
  - korrante zuzena edo galvanikoa.
  - Korrante aldakorra: behe-maiztasunekoa, maiztasun ertainekoa eta goi-maiztasunekoa.
- Korranteen erabilera nagusiak depilazioan: elektrolisia, termolisia, flash-a, blend, anaforesia, goi-maiztasuneko d'Arsonval korrantea.
- Depilazio elektrikoan eragiten duten ilearen faktoreak.
- Depilazio elektrikorako metodoak: Elektrolisia. Termokoagulazioa. Blend. Flash-a.
- Depilazio elektrikoaren metodoa aukeratzeko faktore erabakigarriak. Erabilerak. Kontraindikazioak. Kontuan hartu beharrekoak. Korranteen konparazioa. Mina. Ekipoak.
- Fitxa teknikoak: historia, azterketa-fitxa eta segimendu-fitxa.

#### 4 Depilazio elektrikorako behar diren ekipoak, materiala eta kosmetikoak.

- Depilazio elektrikorako kabinaren eta instalazioen ezaugarriak.
- Ohatilaren eta taburetearen kokapena eta gunearen argiztapena.
- Altzariak: kabina, lupa, mahai osagarria eta beste batzuk.
- Depilazio elektrikorako gehigarriak:
  - Depilatzeko pintzak.
  - Depilatzeko orratzak: motak, ezaugarriak eta kentzeko eta/edo berrerabiltzeko moduak.
  - Itzulera-elektrodoa.
  - beste batzuk.
  - Esterilitatea eta asepsia.
- Depilazio elektrikorako aparatua: deskribapena, kasu bakoitzean erregulatu beharreko parametroak.
- Depilazio elektrikorako prozesuen aurretik eta ondoren emateko kosmetikoak: Antiseptikoa Serum fisiologikoa. Deskongestionatzailea.
- Depilazio elektrikorako teknikaren aplikazioa.
- Jarduera-protokoloa.
- Lehenengo bisita.
- Informazioa eta aholkularitza: prozedurak eta itxaropenak.
- Higienea eta desinfekzioa.
- Ekipoen programazioa.
- Orratza aplikatzeko teknikak:
  - Aurretiko urratsak: orratza aukeratzea, orratza heldulekuan jartzea, eta beste batzuk.
  - Orratza sartzea: eskuak kokatzea, ilearen balorazio bisuala, inklinazio-angelua, kanalizazioaren sakonera.
  - Orratza segurtasun- eta esterilitate-baldintzak betez ateratzea.
  - Depilatzeko parametroen aldaketen adierazleak.
  - Depilazio elektrikoa eraginkorra izan dela adierazten duten faktoreak.
  - Arriskuak eta albo-ondorioak: orbainak.
  - Kontuan hartu beharrekoak, depilazio elektrikoa aplikatu ondorengo zainketak eta geroko saioak.
- Norbera babesteko profesionalen neurriak:
  - Janzkera.
  - Lanerako gomendatutako jarrera-higienea.
- Depilazio elektrikorako prozesuetako bezeroa babesteko neurriak:
  - Janzkera.
  - Depilazio elektrikorako prozesuetarako gomendatutako jarrera-higienea.

#### 5 Depilazio mekanikoko eta elektrikorako prozesuen ebaluazioa eta kalitate-kontrola.

- Depilazio mekanikoko eta elektrikorako zerbitzuen kalitate-faktoreak.
- Depilazio mekanikoko eta elektrikorako zerbitzuen ebaluazioa eta kalitate-kontrola.
- Depilazio mekanikoko eta elektrikorako zerbitzu baten kalitatea definitzen duten parametroak.
- Bezeroaren gogobetetze-maila kontrolatzea, eta depilazio mekanikoko eta elektrikorako zerbitzuetako desbideratzeak zuzentzea.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

UF1155 gainditua izan behar du: Bezeroari depilatzeari buruzko aholkuak ematea eta bezeroa depilatzeko prestatzea

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Beltzarantzea, makillajea eta depilazio aurreratua.